

**DEIALDIAREN BERARIAZKO
30.ZK. ERANSKINA
EUSKARA SUSTATZEA
HELBURU DUTEN
EKINTZA SOZIALETARAKO
DIRULAGUNTZA DEIALDIA.**

**ANEXO ESPECÍFICO DE
CONVOCATORIA Nº 30
CONVOCATORIA DE
SUBVENCIONES PARA ACTIVIDADES
SOCIALES CUYO OBJETIVO ES LA
PROMOCIÓN DEL EUSKERA.**

1. AURREKONTU KREDITUA

6.500 euro

Dirulaguntza lerro hau finantzatzeko, kreditu egokia eta nahikoa jarri beharko da 2026ko ekitaldiko aurrekontuan, espedientearen instrukzio-arloak hala eskatuta.

2. HELBURUA

Deialdi honen xedea da Irunen euskararen erabilera sustatzeko edo indartzeko garatutako egitasmoetarako dirulaguntzen kontzesioa arautzea, 2025eko azaroaren 1etik 2026ko urriaren 30era bitartean gauzatu badira eta betiere Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren (ESEP) helburu nagusiekin bat etortzen badira.

Diruz laguntzeko eskatzen den programa

1. CRÉDITO PRESUPUESTARIO

6.500 euros

Su financiación queda supeditada a la consignación del crédito adecuado y suficiente, a instancias del área instructora del expediente, en el presupuesto del ejercicio 2026.

2. OBJETO

Es objeto de la presente convocatoria la regulación de la concesión de subvenciones para proyectos de promoción o refuerzo del uso del euskera desarrollados en Irun en el periodo de tiempo comprendido entre el 1 de noviembre de 2025 y el 30 de octubre de 2026 y de acuerdo con los objetivos generales del Plan de Acción para la promoción del Euskera (ESEP).

El programa para el que se presente solicitud

hurrengo esparru hauetakoren batean kokatu behar da:

- Gazteen artean Irunen euskararen erabilera sendotzeko helburuetan ardazten diren ekintzak eta programak.
- Irunen euskararen erabilera sustatzeko programa orokorrak bai herriko eta auzoetako jaietan, bai egun eta ekintza berezietan.

Aurkezten diren proiektu edo ekintzen eragin eremuak ez du Irungo udalerrira gaindituko. Aurkezten den proiekturen batek eragin eremu hau gaindituko balu, eskabidean aurkezten den proposamenean zehaztu beharko litzateke zehazki, eta aurrekontuan kuantifikatuta azaldu, zer dagokion Iruni edo irundarrei.

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartzen dira jarduera garatzeko behar-beharrezkoak direnak. Dirulaguntza hauetatik kanpo geratzen dira honako eremu hauek:

- a) Hezkuntza-eremuari soilik zuzendutako programak, edozein irakaskuntza-mota edo -mailatarako sortuak.
- b) Irungo Udalaren beste dirulaguntzen deialdi batzuen ezarpen-esparruetan sartutako programak eta ekintzak.
- c) Administrazio-kostuak, antolamendu-kostuak, barneko kostuak, etab.

de ayuda deberá enmarcarse en alguno de los siguientes ámbitos:

- Acciones y programas dirigidos a reforzar el uso del euskera en Irun entre la juventud.
- Programas generales de promoción del euskera en Irun tanto en las fiestas de la ciudad y de los barrios, como en días y actividades especiales.

El ámbito de las actuaciones presentadas no sobrepasará el municipio de Irun. Si algún proyecto lo sobrepasara, tendrá que especificar concretamente, y cuantificarlo en el presupuesto, qué es lo que atañe a Irun o a los/as iruneses/as.

Se consideran gastos subvencionables aquellos que sean estrictamente necesarios para el desarrollo de la actividad. Quedan excluidos del gasto subvencionable de estas subvenciones los siguientes ámbitos:

- a) Programas dirigidos exclusivamente al ámbito educativo, creados para cualquier tipo o nivel de enseñanza.
- b) Programas y acciones incluidas en los ámbitos de implantación de otras convocatorias de subvenciones del Ayuntamiento de Irun.
- c) Costes administrativos, de ordenación, propios internos, etc.

- | | |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>d) Zalantzarik gabe egiturazkoak diren gastuak: elkartearen kideen prestakuntzari dagozkionak, elkartearen hornidura orokorrari dagozkionak, ikus-entzunezko material ez ahikorra: irrati-kaseteak, bozgorailuak.</p> | <p>d) Gastos de indudable carácter estructural: los relativos a la formación de los miembros de la asociación, a la dotación general de la asociación, material audiovisual no exhaustivo: radiocasetes, altavoces...</p> |
| <p>e) Ez dira diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko diruz lagundutako jarduerarekin lotutako gastu orokor hauek: talde pribatuentzako edo banakako pertsonentzako sariak, bazkarien, afarien edo ostalaritza-zerbitzuei dagozkien beste batzuen kostuak, diruz lagundutako jarduerarekin zuzenean lotutako parte-hartzaileen gastuak izan ezik. Ez da kontuan hartuko jarduera honen antolatzaileena.</p> | <p>e) No tendrán la consideración de gastos subvencionables los siguientes gastos generales relacionados con la actividad subvencionada: premios a grupos privados o personas individuales, costes de comidas, cenas u otros propios de los servicios de hostelería, excepto los gastos generados en relación con los participantes directamente relacionados con la actividad subvencionada. No se tendrá en cuenta la de los organizadores de esta actividad.</p> |
| <p>f) Balio Erantsiaren Zergaren eta zerga baliokideen kostua dirulaguntzaren pertsona/erakunde onuradunek jasaten dutenean eta hirugarrenei jasanarazi ezin zaienean soilik lagunduko da diruz.</p> | <p>f) El coste del Impuesto del Valor Añadido e impuestos equivalentes será subvencionable únicamente cuando éste no sea susceptible de recuperación o compensación por parte de las personas/entidades beneficiarias de la subvención.</p> |

3. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Lehiarik gabeko konkurrentzian eta indibidualizatutako ebaluazioan.

3. PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN DE LA SUBVENCIÓN

Concurrencia no competitiva y evaluación individualizada.

4. ONURADUN IZAERA LORTZEKO BALDINTZAK

HELBURUA atalaren xedea lortzen laguntzeko eranskin espezifikokan zehaztutako dirulaguntza hauen onuradun izaera izango dute dirulaguntzaren xedea den jarduera egin behar duten pertsona fisiko edo juridikoak, edota dirulaguntza jasotzeko zilegi egiten duen egoeran daudenak, gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa baldin badute eta deialdi honetan zehaztutako baldintzak betetzen badituzte baldin eta Irunen euskararen erabilera sustatzeko edo indartzeko ekitaldi edo jarduerak antolatzen baldin badituzte.

Halaber, onuradun izaera izan dezakete pertsona fisiko edo juridikoen taldeak, publiko zein pribatu, ondasunen elkarrekin edo beste edonolako unitate ekonomiko mota edo ondasun banatuak, nortasun juridiko ez izan arren baldin eta egitasmoak, aktibitateak diruz lagungarriak edo dirulaguntza ematea motibatzen duen egoeran badaude.

Kasu honetan, espresuki adierazi beharko da bai eskarian bai emakida ebazpenean ere, taldeko kide bakoitzak hartutako exekuzio konpromisoak, hala nola kide bakoitzari eman beharreko dirulaguntza ere, izan ere onuradun izaera izango baitute. Edonola ere, taldearen ordezkari edo ahaldun bat

4. REQUISITOS PARA OBTENER LA CONDICIÓN DE BENEFICIARIO

Podrán optar a estas subvenciones aquellas personas físicas y jurídicas que colaboren en la consecución del OBJETO de este anexo específico, o que se encuentren en la situación que legitima su concesión, que se hallen en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, y que, además, reúnan los requisitos específicos establecidos por la presente convocatoria siempre y cuando organicen eventos o actividades en Irun para promocionar el uso del euskera.

Asimismo, podrán acceder a la condición de beneficiario/a las agrupaciones de personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, las comunidades de bienes o cualquier otro tipo de unidad económica o patrimonio separado que, aun careciendo de personalidad jurídica, puedan llevar a cabo los proyectos, actividades o se encuentren en la situación que motiva la concesión de la subvención.

En este caso, deberán hacerse constar expresamente, tanto en la solicitud como en la resolución de concesión, los compromisos de ejecución asumidos por cada componente de la agrupación, así como el importe de subvención a aplicar por cada uno de ellos, que tendrán igualmente la consideración de

izendatu beharko da, botere nahikoarekin taldeari onuradun bezala dagozkion konpromisoak betetzeko. Taldea ezin izango da desegin Azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak zehazten duen preskripzio epea amaitu arte.

Entitate eta elkarteen kasuan, Udalarekiko interlokutorea beti izango da/dira erregistroan ordezkari gisa inskribatutako pertsona/k.

5. ESPEDIENTEA BIDERATZEA, EBAZTEA ETA JAKINARAZTEA

a) Dirulaguntzak emateko prozedura izapidetzea Euskararen Erabilera Sustatzeko eta Normalizatzeko zerbitzuko Normalizazio arduradunaren eginkizuna da, eta hau izango da, era berean, dirulaguntza hauen organo instrukziogilea. Ebazpen proposamena gauzatzeko beharrezkoak diren datuak zehaztu, eskuratu eta egiaztatzeko ekintza guztiak burutuko ditu. Beharrezkotzat jotako txosten guztiak eskatu ahal izango ditu, eta txosten horiek hamar egunen barruan igorriko zaizkio.

beneficiarios/as. En cualquier caso, deberá nombrarse un/a representante o apoderado/a único/a de la agrupación, con poderes bastantes para cumplir las obligaciones que, como beneficiario/a, correspondan a la agrupación. No podrá disolverse la agrupación hasta que haya transcurrido el plazo de prescripción previsto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

En el caso de asociaciones o entidades, el/la interlocutor o interlocutores con el Ayuntamiento siempre será la persona o personas las inscritas en el registro correspondiente.

5. INSTRUCCIÓN DEL EXPEDIENTE, RESOLUCIÓN Y NOTIFICACIÓN

a) La ordenación e instrucción del procedimiento de concesión de subvenciones corresponde al/a la Responsable de Normalización del Servicio de Promoción y Normalización del Uso del Euskera, quien realizará de oficio cuantas actuaciones estime necesarias para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales debe formularse la propuesta de resolución. Podrá solicitar los informes que estime necesarios, los cuales deben ser enviados en un plazo de diez días.

- | | |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>b) Ebaluazio aurreko fase bat izango da, instrukzio-organoak erakunde onuradun izateko baldintzak betetzen direla egiaztatuko duena. Nolanahi ere, fase horretan aztertuko dira, soilik, automatikoki egiazta daitezkeen eta baloraziorik behar ez duten betekizunak.</p> <p>c) Balorazio Batzordeak, aurkeztutako eskariak deialdian adierazitako balorazio-irizpideen arabera alderatu ondoren, txosten bat egingo du, ebaluazioaren emaitza eta eskarien hurrenkera zehazteko.</p> <p>d) Emateko prozedura erabakitzea Alkate-Lehendakariaren edo ordezkariak jasotzen duen Organoaren eskumena da.</p> | <p>b) Se establece una fase de pre-evaluación en la que el órgano instructor verificará el cumplimiento de los requisitos necesarios para adquirir la condición de entidad beneficiaria. Esta fase afectará a aquellos requisitos que sean de apreciación automática y cuya concurrencia no requiera de ninguna evaluación.</p> <p>c) La Comisión de Valoración, tras la comparación de las solicitudes presentadas de acuerdo con los criterios de valoración fijados en la convocatoria, emitirá un informe en el que se concretará el resultado de la evaluación y una prelación de las solicitudes.</p> <p>d) La resolución del procedimiento de concesión es competencia de la Alcaldía-Presidencia, u Órgano en quien delegue.</p> |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

6. BALORAZIO BATZORDEAREN OSAKETA

Balorazio Batzordea honako pertsonen osatuko dute: Euskararen Erabilera Sustatzeko eta Normalizatzeko zerbitzuko burua, Normalizazio arduraduna eta normalizazio teknikari bat.

7. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Deialdiaren laburpena GAO-n argitaratzen den hurrengo egunetik 2026ko urriaren 30a artekoa izango da, azken hau barne.

6. COMPOSICIÓN DE LA COMISIÓN DE VALORACIÓN

La Comisión de Valoración estará compuesta por: el/la jefe/a del Servicio de Promoción y Normalización del uso del Euskera, el/la Responsable de Normalización y un/a Técnico/a de normalización.

7. PLAZO DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES

Desde el día siguiente a la publicación del extracto de la convocatoria hasta el 30 de octubre de 2026, inclusive.

8. ESKAERAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Deialdiaren baldintza orokorretan GASTUAREN JUSTIFIKAZIOAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO OROKORRA atalean adierazitako dokumentazioaz gain, eskaera aurkezten den modua dela ere, erantsi beharko zaio:

- Proiektua deskribatuko duen Memoria zehaztutako ereduaren arabera (EUSUS inprimakia)

Inprimaki honek ordezkutzen du deialdi honetako Baldintza Orokorretako GASTUAREN JUSTIFIKAZIOAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO OROKORRA atalean definitutako Memoria.

- Adingaberekin ohiko kontaktua ekartzen duten jardueren kasuan, jarduera hauen errealizazioa dagokion pertsonal guztiak 8/2021 Lege Organikoko 57.1. artikuluan aurrez ikusitako baldintzak betetzen dituen adierazpen arduratsua.

9. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Irizpide eta puntuazio hauek aplikatuko dira:

8. DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR EN LA SOLICITUD

Además de la documentación indicada en el apartado DOCUMENTACIÓN GENERAL A PRESENTAR EN LA JUSTIFICACIÓN DEL GASTO de las Condiciones Generales de la Convocatoria, independiente del modo en que se presenten las solicitudes, deberán acompañarse de:

- Memoria descriptiva del proyecto según modelo fijado (Impreso EUSUS)

Este impreso sustituye a la Memoria del apartado DOCUMENTACIÓN GENERAL A PRESENTAR EN LA JUSTIFICACIÓN DEL GASTO de las Condiciones Generales de esta Convocatoria General de Subvenciones.

- En el caso de actividades que impliquen contacto habitual con menores, declaración responsable de que todo el personal al que corresponde la realización de estas actividades cumple el requisito previsto en el artículo 57.1 de la Ley Orgánica 8/2021.

9. CRITERIOS DE VALORACIÓN DE LAS SOLICITUDES

Se aplicarán los siguientes criterios y puntuaciones:

Proiektuaren ezaugarriak: helburuak argi definituta, plangintza ongi zehaztua egotea. 69 puntu bitarte. Honako hauek kontuan hartuko dira:

1. Aurkeztutako egitasmoaren hizkuntza trataera (gehienez 30 puntu):
 - 1.1. Euskara hutsez izatea: 30 puntu.
 - 1.2. Hizkuntza bera lantzeko eta haren erabilera ziurtatzeko neurri eraginkorrak zehazten dira: 20 puntu
2. Aurkeztutako egitasmoan parte hartzaileen adina:
 - 2.1. **Haur eta 35 urte bitarteko gazteei** zuzendutako jarduerak (25 puntu).
 - 2.2. **Hiritar guztiei** zuzendutako jarduerak (20 puntu).
3. **Udalaren hizkuntza-helburuak** lortzeko interesgarritzat hartzen diren jarduerak. (0-10 puntu).
4. Genero berdintasuna (0-4 puntu):
 - Genero berdintasun neurri eraginkorrak daude (4 puntu).
 - Genero berdintasun neurriak argiro izendatzen dira (3 puntu).
 - Genero berdintasun neurri batzuk daude (2 puntu).
 - Genero berdintasuna aipatu egiten da soilik (puntu 1).
 - Genero berdintasuna ez da aipatzen (0

Características del proyecto: definición clara de objetivos, planificación bien definida. Hasta 69 puntos. Se tendrán en cuenta:

1. Tratamiento lingüístico del proyecto presentado (máx. 30 puntos):
 - 1.1. Exclusivamente en euskera: 30 puntos.
 - 1.2. Se detallan medidas eficaces para trabajar la propia lengua y asegurar su uso: 20 puntos
2. Edad de las/los participantes en el proyecto presentado:
 - 2.1. Actividades dirigidas **a niños/as y jóvenes de hasta 35 años** (25 puntos).
 - 2.2. Actividades dirigidas **a toda la ciudadanía.** (20 puntos).
3. Actividades consideradas de interés para la consecución de los **objetivos lingüísticos del Ayuntamiento.** (0-10 puntos).
4. Igualdad de género (0-4 puntos):
 - Existen medidas efectivas de igualdad de género (4 puntos).
 - Las medidas de igualdad de género se nombran claramente (3 puntos).
 - Existen algunas medidas de igualdad de género (2 puntos).
 - Sólo se menciona la igualdad de género (1 punto).
 - No se menciona la igualdad de género (0

puntu).

Irizpide hau aplikatuko da proiektuen baliospen global bat eginda, ezin baita datu objektibo soiletan oinarrituta kalkulatu, baizik ikuspegi kualitatibo batez. Baliospena egiteko kontuan izango dira proiektuaren garapen teknikoa, zehaztasuna, sakontasuna eta elaborazio maila.

Aurkeztutako proiektuaren txostenak 40 puntu lortu behar ditu gutxienez. Dirulaguntza Udalak diruz lagun dezakeen proiektuaren gastuaren % 80ra irits daiteke. Edonola ere, egitasmoko gehienez 1.500 euro jaso ahal izango dira.

Salbuespen gisa, aurkeztutako proiektua jarduera multzo batean sartzen ez bada, berezko berezitasuna badu eta jarduera garatzean gerta daitezkeen gorabeherak estaltzeko aseguru-poliza bat kontratatzea aurreikusten badu gastu bakar gisa, gastu hori oso-osorik diruz lagundu ahal izango da, eranskin honetako kontsignazioaren kargura, espedientearen instrukzio-organoak proposatuta.

10. BALIABIDEAK BIRBANATZEA

Deialdiaren baldintza orokorretan aurreikusitako egoeren arabera, baliabideen birbanatzea egitea dagokionean,

puntos).

Este criterio se aplicará mediante la realización de una valoración global de los proyectos, ya que no puede calcularse en base a datos meramente objetivos, sino que, desde un punto de vista cualitativo, la validación se realizará teniendo en cuenta el desarrollo técnico, la precisión, la profundidad y el grado de elaboración del proyecto.

El informe del proyecto presentado debe obtener un mínimo de 40 puntos. La subvención podrá alcanzar el 80% del gasto del proyecto considerado subvencionable por el Ayuntamiento. En cualquier caso, se podrá percibir un máximo de 1.500 euros por proyecto.

Con carácter excepcional, cuando el proyecto presentado no se integre en un conjunto de actividades, posea una singularidad propia y prevea como único gasto a incurrir la contratación de una póliza de seguro para cubrir las incidencias que puedan tener lugar en el desarrollo de la actividad, este gasto podrá ser íntegramente subvencionable con cargo a la consignación del presente anexo a propuesta del órgano instructor del expediente.

10. REASIGNACIÓN DE RECURSOS

En los casos que, conforme a los supuestos previstos en las condiciones generales de la convocatoria proceda realizar reasignación

ondorengo dirulaguntza lerroetara birbanatu ahal izango da:

- "Euskararen Nazioarteko Eguna" ekitaldietarako dirulaguntza

de los recursos, se podrá reasignar a las siguientes líneas de subvenciones:

- Actividades del "Día Internacional del Euskera"

11. GASTUAREN JUSTIFIKAZIOAK AURKEZTEKO EPEA

Dirulaguntzaren eskabidea aurkezten den unean justifikatuko da gastua.

11. PLAZO DE PRESENTACIÓN DE JUSTIFICACIÓN DEL GASTO

La justificación del gasto se realizará en el momento de la presentación de la solicitud de subvención.

12. DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA

Dirulaguntzak epe bakarrean ordainduko dira onuradunek deialdi honen baldintza orokorretan eta berariazkoetan zehaztutako dokumentazioa aurkeztu eta gero. Aurrez, Instrukzio Organoak aldeko txostena egin beharko du, eta organo eskudunak, dagokion ebazpena eman.

12. ABONO DE LA SUBVENCIÓN

Las subvenciones se abonarán en un único pago, una vez que las y los beneficiarios hayan presentado la documentación mencionada en las condiciones generales y específicas de esta convocatoria previa emisión de informe favorable por el Órgano de Instrucción y consecuente resolución del órgano competente.